Horretarako beti kontuan hartu beharko da, batetik, fatxadak zein materialez eginak dauden (harri naturala edo artifiziala, marmola, adreilua, zementua, etab.), eta, bestetik, pintadek zein elementu kimiko dituzten, modu horretan erabiliko diren produktuek fatxadak hondatu ez ditzaten.

Esta limpieza se efectuará teniendo en cuenta siempre tanto el material de que están constituidas las fachadas (piedra natural o artificial, mármol, ladrillo, cemento, etc.) como los elementos químicos de que se componen las pintadas empleándose productos que no dañen las fachadas.

Era berean, egin beharreko lan guztietan eraikinaren estetika gordetzeko ahaleginak egingo dituzte.

Igualmente se procurará mantener la estética del edificio en todas las actuaciones.

Kartelak garbitzear dagokionez, horiek kentzeko makina egokiak erabiliko dituzte. Horrez gain, altzairuzko arrabotarik ez dute erabiliko, ezta fatxadak hondatu dezaketen marraskatzeko tresnarik ere.

Por lo que respecta a la limpieza de carteles, se retirarán empleando máquinas adecuadas, evitándose cepillar con cepillos de acero y rascar con herramientas que puedan dañar las fachadas.

Enpresa esleipenduna arduratuko da banderolak kentzeaz, lan horrek behar dituen bitartekoak erabiliz, altueran jarrita daudenak barne. Lan horiek euskarri gisa erabiltzen diren udal ondasunak edo ondasun pribatuak kaltetu gabe egingo dira.

La empresa adjudicataria se encargará de la retirada de banderolas utilizando los medios que precisa dicho trabajo, incluyendo los que se encuentren colocados en altura. Dichos trabajos, serán efectuados sin dañar los bienes municipales o privados que sirven de elementos de sustentación.

Behin kartelak kendu ondoren lanean jardundako hurbileko gunea erraztatuko dute eta garbiketa produktuen hondakinak jasoko dituzte.

Una vez retirados los carteles se barrerá la zona próxima en la que se ha trabajado y se recogerán los residuos productos de la limpieza.

Lan horietarako enpresa lizitatzaileek proposatu beharko dute zein den ekipamendu egokiena

Para estos tratamientos las empresas licitadoras deberán proponer el tipo de equipo más adecuado

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

langileak, tresneria, etab. adieraztearekin batera. Horiek gailu edo baliabide eraginkorrenez hornituko ditu, eta ahal den neurrian ekologiaren aldetik egokienak direnak, betiere merkatuan eskuragarri badira. Gainera, zerbitzuaren elementu bakoitzaren prezio unitarioak adieraziko ditu.

indicando personal, maquinaria, etc., y dotando a éstos de los dispositivos o medios más eficaces, y a ser posible los más adecuados desde el punto de vista ecológico, que se hallen disponibles en el mercado, debiendo indicar los precios unitarios de cada elemento del servicio.

Kentzen diren materialak eta udalak hala agintzen duenean, pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileak gordeko ditu ondoren jabeei itzultzeko edota udalaren aginduen arabera materialak tratatzeko.

Aquellos materiales retirados y que sean ordenados por el ayuntamiento, serán guardados por la persona/ empresa adjudicataria para su posterior devolución a sus propietarios o propietarias o hasta su tratamiento según órdenes municipales.

3.1.3.22. Olio, koipe, orbanak eta abar garbitzea

Udal arduradunek agintzen dutenean, edo hala balegokio enpresa emakidadunaren langileek, olio, koipe, etab. Orbanak garbituko dituzte. Izan ere, kontuan hartu behar da halako orbanak ez direla desagertzen erraztatze eta ureztatze lanetan.

Garbiketa lanetarako produktu eta baliabide egokiak erabiliko dituzte, eta, gainera, ondoren berriro garbitzeko presipopeko ura erabiliko dute.

3.1.3.22. Limpieza de manchas de aceite, grasa, etc.

Cuando lo ordenen responsables municipales, o en su caso personas de la empresa concesionaria, se procederá a una limpieza de manchas de aceite, grasa, etc., que normalmente no desaparecen en las operaciones de barrido y baldeo.

Para su realización se utilizarán los productos y medios de limpieza adecuados, procediéndose a un posterior aclarado con agua a presión.

3.1.3.23.- Bide publikotik hildako animaliak erretiratzea

Pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileari egokituko zaio zerbitzua betetzeko obligazioa, eta bide publikoan hildako animalia dagoela jakin bezain laster bete beharko dute zerbitzua, beti ere udaltzainei esan ondoren. Kudeaketa gastuak enpresa esleitzaileari dagozkio.

3.1.3.23.- Retirada de animales muertos de la vía pública

Corresponde a la persona/empresa adjudicataria la obligación de realizar este servicio procediendo a su ejecución inmediatamente después de haber tenido conocimiento de la existencia del animal muerto en la vía pública, no sin antes avisar a la Policía Local. Los costes de gestión será a cuenta de la empresa adjudicataria.

3.1.3.24.- Seinaleen eta markesinen garbiketa

3.1.3.24.- Limpieza de la señalización y marquesinas

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

Eguneroko seinale eta markenisak garbi mantentzean datza, pegatinak, zintak, iragarkiak etab. kenduz.

Markesinak garbitzeko lanek kontuan hartuko dute kartelak kendu, presio haundiz ureztatu eta markesinak garbitu behar direla itxura garbia eta dirdiratsua izan dezaten.

Consiste en un mantenimiento diario de las señales y las marquesinas retirando pegatinas, cintas, publicidad, etc.

La limpieza de señalización y marquesinas incluirá también la retirada de carteles, chorreo con agua a presión y el lavado con productos que posibilite que dichas marquesinas presenten un aspecto nítido y brillante.

3.1.3.25.- Elurte eta/edo izozte handietarako plana

Lizitatzen duenak jarduera plana proposatuko du elurte eta/edo izozte handien kasuetarako. Bertan aurreikusitako antolaketa, lan zehatzetarako baliabideak zehaztu beharko ditu, esate baterako, elurra nahiz izotza urtzeko zabaldu beharreko produktuak, elur-kentzeko makinak, etab.

Izotzaldietan ez da ureztatze lanik egingo, ez eskuz ez makinaz.

Elurrak eta izotzak erraztatzea eragozten dutenean, enpresak zerbitzu horietako langile guztiak jarri beharko ditu herriko bide eta espaloi nagusietako elurra eta/edo izotza kentzeko, eta beharrezkoa izanez gero, urtzaile kimikoak ere erabiliko ditu. Elurte eta izotzaldietako planaren lan guztiak Udalarekin koordinatuko dira.

3.1.3.25.- Plan de nevadas y/o fuertes heladas

Quien licita propondrá un plan de actuación para el caso de nevadas y/o fuertes heladas, indicando la organización prevista, medios para la realización de trabajos específicos tales como esparcido de productos para la fusión de nieve o hielo, quitanieves, etc.

Con heladas se evitarán baldeos, tanto mecánicos como manuales.

Cuando la nieve y el hielo imposibiliten el barrido, la empresa deberá dedicar todo el personal afectado por estos servicios a la retirada de nieve y/o hielo de las vías y aceras principales de la ciudad; utilizando si fuera preciso, fundentes químicos. Todas las labores del plan de nevadas y heladas se coordinarán con el ayuntamiento.

3.1.3.26.- Salbuespenezko lanak

Pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileak arestian aipaturiko zerbitzuak emateaz gain, baliabide guztiak jarri beharko ditu kontratuaren xede diren lanetarako udalaren esku era osoan, baldin eta larrialdi egoerak gertatzen badira edo salbuespenezko bestelako edozein egoeratan.

Egin beharreko lanaren kontrol sistema, kuantifikazioa eta balorazioa beharrezkoa izango dira aurrera eraman beharreko plana udal zerbitzu

3.1.3.26.- Trabajos excepcionales

La persona/ empresa adjudicataria, además de prestar concretamente los servicios antes citados, deberá poner todos los medios asignados a los trabajos objeto de contrato a la entera disposición del ayuntamiento en casos de emergencia o cualquier otra situación excepcional.

El sistema de control, cuantificación y valoración del trabajo a realizar, requerirá la aprobación por parte de los servicios técnicos municipales del plan a

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

teknikoek onartzea.

seguir.

3.1.3.27.- Aurreko zerbitzu guztietan bilduriko hondakin guztiak bildu eta tratuak izateko eramatea

Lizitatzaileak proposatuko du azterlan xehatu bat, aurreko zerbitzu guztietan gaikako bilduriko hondakin guztiak bildu eta tratuak izan daitezen eramateko.

Erraztatze eta azoketako produktuak biltzeko estrategikoki jarritako mota bakoitzari dagokion zaborrontziak erabiliko dituzte, biltzeko ibilgailuak zaborrontzi-jasogailu sitema dutelarik.

Udal jakinarazpena izanez gero, kontratak hondakin inerteak eta kontrolatu gabeak bilduko ditu, lur-zoru urbanizagarrian nahiz urbanizaezinean.

3.1.3.27.- Recogida y traslado a lugar de tratamiento de todos los residuos procedentes de los servicios anteriores

Quien licita propondrá un estudio detallado de la recogida selectiva y transporte de residuos procedentes de cada uno de los servicios descritos anteriormente.

Para la recogida de productos de barrido y mercados se emplearán contenedores estratégicamente situados específicos para cada tipo de residuo y vehículos recolectores provistos de sistema eleva-contenedores.

La contrata deberá de recoger los vertidos inertes e incontrolados, tras aviso municipal, en suelo no urbanizable o suelo urbanizable.

3.1.3.28.- Esku-hartzeko zerbitzu azkarra bide publikoan

Pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileak lan plan bat prestatuko du garbiketa lan bereziak egiteko, istripuak, ezbeharrak eta bestelako ezohiko egoera bereziak direla eta, udalak halako lanak egitea eskatzen duenerako, laneko orduteguaren barruan eta kanpo.

Lizitatzaileek eskaintzetan justifikatuko dituzte erabiliko dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak. Gainera, ekipamendu kopurua ezarriko dute eman beharreko zerbitzuen tamainaren arabera.

3.1.3.28.- Servicio rápido de intervención de limpieza viaria

La persona/ empresa concursante preparará un plan de trabajo para realizar limpiezas especiales con motivo de accidentes, siniestros y demás circunstancias extraordinarias cuya ejecución sea demandada por el ayuntamiento, dentro y fuera del horario laboral.

Quienes licitan justificarán en sus ofertas los medios humanos y materiales a emplear, estableciendo el número de equipos según la magnitud de los servicios a prestar.

3.1.3.29.- Oiartzun ibaiaren garbiketa

Oiartzun ibaiaren gune urbanoko hondakinak gaika bildu beharko dira.

3.1.3.29.- Limpieza del rio Oiartzun

Se deberán de recoger selectivamente los residuos del tramo urbano del rio Oiartzun.

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

3.1.4- ZERBITZUEN MAIZTASUNA ETA EZAUGARRIAK

Aurreko puntuan deskribatutako nahitaezko zerbitzuetako lanek maiztasun desberdina izango dute. Koadro bat erantsi da lan bakoitzaren nahitaezko maiztasuna eta zerbitzuen laburpena adierazita.

Atal honetako helburua da zerbitzu bakoitzeko maiztasunak eta egin beharrekoak argitzea. ANEXO IV. Eranskinean laburpen taula bat aurkitzen da.

Udalerriak 19 ibilbidetan banatu da. **Eskuz erraztatzeko** zerbitzua burutzeko, Ibilbide bakoitzerako langile bat igorriko da eta egunero gunea erraztatu beharko du. Gune horiek Errenteriako udalerri osoa hartzen dute. Udalak honako ibilbideak proposatu ditu: (I. ANEXOan, gune bakoitzeko mugak azalduko dira)

1.- Erdigunea

2.- Erdigunea

3.- Erdigunea

4.- Pontika

5.- Gabierrota

6.- Iztieta

7.- Olibet, Etxeberrieta

8.- Igantzi

9.- Alaberga

10.- Galtzaraborda

11.- Beraun behealdea

12.- Beraun gainaldea

3.1.4- FRECUENCIA Y DEFINICIÓN DE LOS SERVICIOS

Dentro de los servicios obligatorios descritos en el punto anterior, cada servicio tiene su correspondiente frecuencia y dotación horaria.

Es objeto de este apartado detallar las frecuencias y dotaciones de cada servicio. El ANEXO IV dispondrá de un cuadro resumen.

Para la realización de los trabajos correspondientes al **barrido manual,** se ha dividido el municipio en 19 recorridos diferentes. Habrá un operario destinado a cada recorrido y diariamente se tendrá que barrer la zona. Estas zonas abarcan todo el conjunto del municipio de Errentería. Se plantea desde el ayuntamiento la división en las siguientes zonas: (En el ANEXO I, se detallará los límites de cada zona)

1.- Zona centro

2.- Zona centro

3.-Zona centro

4.-Pontika

5.-Gabierrota

6.- Iztieta

7.- Olibet, Casas nuevas

8.- Igantzi

9.-Alaberga

10.- Galtzaraborda

11.- Beraun zona baja

12.- Beraun zona alta

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

13.- Esnabide eremua	13.- Zona Esnabide
14.- Kaputxinoak gainaldea	14.- Kaputxinos zona alta
15.- Kaputxinoak behealdea	15.- Kaputxinos zona baja
16.- Fanderia	16.- Fandería
17.- Agustinak	17.- Agustinas
18.- Gaztaño	18.- Gaztaño
19.- Altzate/Sagardiburu/ industrialdea / Listorreta/ Barrengoloia/Arramendi / San Marcos	19.-Altzate/Sagardiburu/zona industrialdea/Listorreta/ Barrengoloia/Arramendi/San Marcos

19 ibilbideak egunero eskuz erraztatuko dira, astelehenetik ostiralera, goizez, 7 ordutan, eremu bakoitzari zerbitzua emateko eta garbiketa egiteko.

En los 19 recorridos, se aplicará un barrido manual diario, de lunes a viernes con una dotación de 7 horas diarias para el servicio y limpieza de la zona.

Ibilbideak eskuz erraztatzeko lanen barnean beste lan hauek ere burutuko dituzte: parkeak eta lorategiak, txorkoak, eskailerak, lurrazpiko eta aireko pasabideak, animalien gorotzak, haurren jolas-eremuak, zakarrontzien gaikako hustutzeak. Lan horiek guztiak egunero egingo dira.

Dentro de los trabajos de barrido manual de los recorridos se realizarán diariamente, aparte de los correspondientes al barrido en sí, los siguientes trabajos: limpieza de parques y zonas ajardinadas, limpieza de alcorques, limpieza de escaleras, pasos subterráneos y aéreos, limpieza y retirada de excrementos de animales, limpieza de zonas de juegos infantiles, limpieza y vaciado selectivo de papeleras. Todos estos trabajos se realizarán diariamente.

Erraztatzeko eta garbiketa orokorrerako laguntzetarako 3 **motogurdi** jarriko dira bakoitza langile batekin, astelehenetik ostiralera 6:00etatik 13:00etara, egunero 7 ordu.

Para ayudas auxiliares de barrido y limpieza en general se habilitarán 3 unidades de **motocarro** con un operario cada uno de lunes a viernes con una dotación de 7 horas diarias.

Makina bidez erraztatzeko 3 makina jarriko dira astelehenetik ostiralera, 7 orduko ordutegiarekin. Makina erraztatzaileek udalerriko azalera guztia hartu beharko dute. Enpresa lizitatzaileak aurkeztu beharko ditu egunean zehar lan guztia egin ahal izateko balizko ibilbideak.

Para el **barrido mecánico**, se habilitarán 3 barredoras de lunes a viernes con un horario de 7 horas diarias. Con las barredoras se abarcará todas las superficies del municipio. La empresa licitadora tendrá que presentar los posibles recorridos para que durante el día quede todo el trabajo realizado.

Mantenuko erraztatzean, larunbatetako eta igandeetako edo jaiegunetako mantenu-erraztatzea bereizten da:

Dentro del **barrido de mantenimiento,** diferenciaremos el barrido de mantenimiento de los sábados y de domingos o festivos:

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

Larunbatetan eskuz erraztatzeko 14 langilerekin eta makina bidez erraztatzeko 2 langilerekin egingo da garbiketa, egunean 6 orduz. Enpresa lizitatzaileak garbiketa proposamen bat aurkeztuko du larunbatetarako, adierazitako gutxieneko langile kopuruarekin. 14 langileekin estali beharko dira eskuzko erraztatzeari dagozkion 19 eremuak.

Los sábados se englobará la limpieza de la superficie con 14 operarios de barrido manual y 2 de barrido mecánico con una dotación de 6 horas/día. La empresa licitadora presentará un planteamiento de limpieza para los sábados con una mínima dotación del personal que se establece. Con los 14 operarios, se tendrá que abarcar la totalidad de las 19 zonas correspondientes al barrido manual.

Igande edo jaiegunetan erdigunea (1, 2 eta 3 eremuak) garbituko da, 5 langile, langile bat motokarro batekin, langile bat barredora batekin eta beste langile bat baldeadorarekin eguneko 5 orduz.

Para los domingos o festivos se limpiará la zona centro (zonas 1,2 y 3) con una dotación de personal de 5 operarios, 1 operario con motocarro,1 barredora y una baldeadora con 5 horas al día.

Eskuzko ekorketa egiten duten 5 langileek, erratz-makinak eta baldeadoral garbituko dute adierazitako erdigunea, eta motokarroa duen langileak erdigunetik kanpo dauden paperontziak hustuko ditu, baita gehien erabiltzen diren guneak ere, hala nola Pablo Sorozabal plaza, Sarriegi plaza, Cristobal Gamon patioa, Markolako patioa, Gaztañoko balioanitz patioa, Pontikako frontoia, Gernika plaza, Diputazio plaza, Musika plaza, Telleri eta Alabergako plaza.

Los 5 operarios de barrido manual, barredora y baldeadora limpiarán la zona centro indicada y el operario con motocarro se centrará en vaciar las papeleras situadas fuera de zona centro y las zonas con mayor uso así como la plaza de Pablo Sorozabal, la plaza Sarriegi, el patio de Cristobal Gamon, el patio de Markola, el patio polivalente de Gaztaño, el frontón de Pontika, Gernika plaza, Diputazio plaza, Musika plaza, Telleri y plaza de Alaberga.

Astelehenetik ostiralera 7 orduz **ureztatuko du eskuz** talde batek. Udaleko teknikariekin adostuko da zer azalera garbitu behar diren. Enpresa lizitatzaileak aurkeztuko du eskuzko ureztatzerako proposamena.

El **baldeo manual** se realizará mediante un equipo de lunes a viernes de 7 horas diarias. Las superficies a limpiar serán consensuadas con los técnicos municipales. La empresa licitadora presentará el planteamiento del baldeo manual.

Astelehenetik ostiralera 7 orduz langile batek **ureztatuko du makinaz**, udalerrian ezarritako beharren arabera.

El **baldeo mecánico** se realizará mediante un equipo compuesto por un operario de lunes a viernes de 7 horas diarias y según las necesidades establecidas del municipio.

Astelehenetik ostiralera 7 orduz **garbituko du lurra makinaz** talde batek**,** udalerriaren beharren arabera. Enpresa lizitatzaileak aurkeztuko du lurra eskuz garbitzeko proposamena.

El **fregado mecánico** se realizará mediante un equipo de lunes a viernes compuesto de un operario de 7 horas diarias y según las necesidades establecidas del municipio. La empresa licitadora presentará el planteamiento del fregado manual.

Astelehenetik ostiralera 7 orduz garbituko ditu **isurbideak eta kaino-zuloak** talde batek. Enpresa lizitatzaileak aurkeztuko du isurbideak eta kaino-

La **limpieza de sumideros e imbornales** se realizará mediante un equipo compuesto por un operario de lunes a viernes de 7 horas diarias. La

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

zuloak garbitzeko proposamena.

empresa licitadora presentará el planteamiento de la limpieza de sumideros e imbornales.

Landa eremuko ondorengo udal ibilbideetan: Beraun-San Marco, Zamalbide San Marco, Benta-Barrengoloia, Añabitarte y Listorreta, kunetak sakonki gutxienez urtean lauetan garbituko dira.

A lo largo de los viales de titularidad municipal en suelo no urbanizable: Beraun-San Marco, Zamalbide San Marco, Benta-Barrengoloia, Añabitarte y Listorreta, se limpiarán las cunetas profundamente al menos cuatro veces al año.

Zakarrontziak egunero garbituko eta hustuko dituzte eskuz erraztatzen duten taldeek.

La **limpieza y vaciado de las papeleras** se realizará diariamente mediante los equipos de barrido manual.

Animalien gorotzak garbitzea eta kentzea eskuzko erraztatzeko talde guztien ardura izango da; ohiko ibilbidean eta lanaldian egin beharko dute.

La **limpieza y retirada de excrementos de animales** será competencia de todos y cada uno de los equipos de barrido manual, la eliminación de los excrementos de animales en su itinerario y jornada habitual diariamente.

Parkeak eta lorategi-eremu irekiak garbitzea eskuz erraztatzeko talde guztien ardura izango da; paperak, plastikoak, ontziak, botilak, kartoiak eta bestelakoak bildu beharko dituzte ohiko ibilbideko gune berdeetan, ohiko lanaldian. Udaleko eta publikoki gerturatu ezin diren ezponda berdeen garbiketa ere alor honetan sartuko dugu.

La **limpieza de zonas ajardinadas abiertas y verdes** será competencia de todos y cada uno de los equipos de barrido manual, la eliminación de papeles, plásticos, envases de todo tipo, botellas cartones, etc, de las zonas verdes en su itinerario y jornada habitual. Se incluirán los taludes de áreas verdes no accesibles para el público en general, existentes a lo lago del municipio.

Listorreta-Barrengoloiako eta San Markoko atsedenlekuak egunero garbitu beharko dituzte eskuz erraztatzeko taldeek bisitari gehien izaten diren garaietan, udal-zerbitzu teknikoen jarraibideen arabera. Urteko gainerako datetan, astean bi egunetan baino ez da garbituko, eta horietako bat astelehenetan edo jaiegunen ondorengo egunetan egingo da.

La **limpieza de las áreas recreativas de Listorreta-Barrengoloia y de San Marcos** corresponderá diariamente realizarla a los equipos de barrido manual durante las fechas de mayor frecuentación de visitantes, según indicaciones de los servicios técnicos municipales. El resto del año la frecuencia de la limpieza se reducirá a dos veces por semana, una de las cuales se corresponderá con los lunes o días posteriores a festivos.

Zuhaitzen txorkoetako hondakinak eskuz erraztatzeko taldeek garbituko dituzte egunero. Eragin handieneko sasoietan zerbitzu horiek indartuko dira eskuzko erraztatzeetatik kanpoko langileekin.

La **limpieza de los residuos en los alcorques de los árboles** corresponderá diariamente realizarla a los equipos de barrido manual. En las épocas estacionales de mayor incidencia se reforzarán estos servicios de forma independiente al barrido manual.

Bide publikoetako belarrak eta sasiak eskuz erraztatzeko taldeek garbituko dituzte egunero. Eragin handieneko sasoietan zerbitzu horiek

La **limpieza de hierbas y matojos** en vía pública, corresponderá diariamente realizarla a los equipos de barrido manual. En las épocas estacionales de

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

indartuko dira eskuzko erraztatzeetatik kanpoko langileekin. Herbizida eta fitosanitarioen erabilera debekatua dago.

mayor incidencia se reforzarán estos servicios de forma independiente al barrido manual. Se prohíbe el uso de herbicidas y fitosanitarios.

Oinezkoentzako lurrazpiko eta aireko pasabideak eskuz edo makinaz erraztatuko dituzte, pasabidearen ezaugarrien arabera. Gainera, lana lurra makina bidez ureztatuz osatuko beharko dute.

La limpieza de pasos peatonales subterráneos y aéreos, serán objeto de un barrido manual o mecánico diario, según las características del paso completado por un fregado mecánico del suelo.

Lurrazpiko pasabideetan sabaiak eta hormak ureztatu beharko dituzte, gutxienez hilabetean behin.

En los pasos subterráneos se procederá a un fregado de los techos y paredes, al menos una vez al mes.

Ikastetxeetako jolas-tokiak astean behin garbituko dira; ikastetxeko zuzendaritzarekin adostuko da eguna eta ordua. Ikastetxe bakoitza eskuz edo makinaz erraztatuko da, ikastetxearen ezaugarrien arabera.

La limpieza de los patios de los colegios se hará una vez a la semana, habiendo consensuado el día y la hora previamente con la dirección del centro. En cada centro se realizará el barrido manual o mecánico acorde a las condiciones de cada centro.

Koldo Mitxelena ikastetxeko patioa (Biteri), Kristobal Gamonek estalitako patioa eta Markolako patio estalia egunero garbituko dira ikastetxea ireki aurretik.

El patio del colegio Koldo Mitxelena (Biteri), el patio cubierto de Cristobal Gamón y el patio cubierto de Markola se limpiarán todos los días antes de la apertura del colegio.

Merkadilloen garbiketa, astean behin arratsaldeko ordutegian egingo dute, salmenta postuak jaso ondoren, herriko 2 azoketan. Egun azoka horiek igandez (Beraun) eta astelehenez (Erdialdea) izaten dira.

La **limpieza de los mercadillos** se efectuará una vez por semana en horario de tarde, una vez retirados los puestos de venta, en cada uno de los 2 mercadillos de la localidad, que en la actualidad se realizan en domingo (Beraun) y lunes (Centro).

Erdiguneko merkadilloan birziklapena bultzatzeko, langile batek postuetatik hondakinak (papera, organikoa...etc) gaika jasotzen lagunduko die postuetakoei.

Para fomentar el reciclaje en el mercadillo del centro, un operario ayudará a recoger los residuos selectivamente(papel, cartón, etc...) de cada puesto

Festen garbiketa, pertsona/enpresa lizitatzaileek erabiliko dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak justifikatu beharko dituzte eskaintzetan. Horrela eman beharreko zerbitzuen tamainaren arabera ezarri beharko dute talde kopurua. Dena den, hasiera batean zerbitzua ohiko langileek egin beharko dute eta lanaldi berean, baina hau erreforzatua izango da behar den kasuetan. Kultur ekitaldien maiztasuna, VII. ANEXOan zerrendatuko da.

Para la **limpieza de fiestas,** las personas/empresas licitadoras justificarán en sus ofertas los medios humanos y materiales a emplear, estableciendo el número de equipos según la magnitud de los servicios a prestar. Si bien en principio se efectuará con el personal habitual en su misma jornada, se deberá de reforzar acorde a las necesidades. Las frecuencias de los eventos culturales se detallan en el ANEXO VII.

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

Azoka eta kontzentrazioetako garbiketa bereziak udal-teknikariek eskatuko dituzte behar direnean.

La **limpiezas especiales con motivos de ferias y concentraciones,** serán solicitados por los técnicos municipales en cuanto sean necesarios.

Lan horiek, oro har, espazio publikoak hartuko dituzte, hala nola udal teknikarien iritzien arabera beharrezkoa izango den lekuetan.

Estos trabajos abarcarán los espacios públicos en general y en aquellos puntos en que a criterio de las y los técnicos municipales fuera necesario.

Haurrak jolasteko eremuak egunero garbituko dituzte eskuz erraztatzeko zereginen artean. Eremu horietako grafitiak hiruhilero garbituko dira.

La **limpieza de las zonas de juegos infantiles** se realizará diariamente dentro de las labores de barrido manual. La limpieza de grafitis de los juegos infantiles se realizará trimestralmente.

Eremu horietako zoru teknikoak eskuz erraztatuko dira egunero; debekatua dago erraztatzeko makinak erabiltzea.

Los suelos técnicos de los juegos infantiles se barrerán manualmente diariamente, quedando totalmente prohibido el uso de barredoras.

Kirol-instalazioak kirol patronatuak ezarritako beharren arabera garbituko dira, gutxienez, astean behin. Beraungo atletismo pista, urtean bi aldiz garbituko da presiozko urarekin.

La **limpieza de las instalaciones deportivas** será acorde a las necesidades establecidas por el patronato de deportes y al menos durante una vez a la semana. La pista de atletismo de Beraun se limpiará dos veces al año con agua a presión.

Iturriak astean hirutan garbituko dira.

La limpieza de fuentes se realizará con una frecuencia de 3 veces por semana.

Pintadak garbitzeko lanak udalerri osoan egingo dituzte, publiko diren eraikin guztietan, murru eta horma guztietan, etab., eta, oro har, Udalaren zerbitzu guztietan.

La limpieza de pintadas, retirada de carteles, pancartas, banderolas y similares se ejecutará comprendiendo todo el término municipal, en todos los edificios, muros y paredes, etc., de carácter público y en general en todos los servicios del Ayuntamiento.

Seinale eta markesinen mantenu garbiketa bat egingo da egunero, zinta, pegatina, iragarkiak, etb kenduz. 6 hilabetetik behin garbiketa sakon bat egingo da.

Para la **limpieza de señalización y marquesinas**, se hará un mantenimiento diario de retirada de cintas, pegatinas, publicidad. Cada 6 meses se les realizará una limpieza profunda.

Animalia hilen, olio-orbanen, elurteen, izotzaldien eta bideak garbitzeko zerbitzu azkarraren inguruko garbiketak unean uneko beharren arabera egingo dira.

Las frecuencias de **retirada de animales muertos de las vías públicas, la limpieza de manchas de aceite, grasa, etc, plan de nevadas y/o fuertes heladas, el servicio rápido de intervención** de limpieza viaria se realizará según las necesidades puntuales.

Baserritarren gunearen garbiketa egunero egingo

La **limpieza de la zona de los baserritarras** se

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

da arratsaldeko ordutegiarekin, behin salmenta postuak kendu ondoren.

Oiartzun ibaiaren garbiketa hilabeteko maiztasunarekin egingo da edo udal teknikariren batek eskatzen duenean.

realizará diariamente en horario de tarde, una vez hayan retirado los puestos de venta.

La **limpieza del tramo urbano del rio Oiartzun** se realizará mensualmente o cuando lo solicite un técnico municipal.

3.2.- HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA

3.2.1. ZERBITZUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Errenteriako udalerrian egunero hiri hondakinak eta asimiligarriak bildu eta garraiatzea.

Hiri hondakinen gaikako bilketan biohondakinaren edo materia organikoaren bilketa (edukiontzi marroia) eta errefuxarena (edukiontzi grisa) bereizten ditugu.

Kontratu honen xedetik kanpo geratuko da San Markoko Mankomunitateak sustatu eta kudeaturiko hiri hondakinak eta asimilagarriak biltzea eta garraiatzea

Herri jabarian instalaturiko errefuxa eta biohondakina edo materia organikoaren zaborrrontziak biltzeko ordutegia egunekoa izango da. Dena den, kontuan hartu behar da bilketarako aurreikusitako ibilbideak beteko direla zerbitzua bukatutzat eman aurretik, behar bezala arrazoituriko kasuren batean izan ezean.

3.2.2. EZINBESTEKO ZERBITZUAK

Hiri hondakinak bildu eta garraitzeko DERRIGORREAN BETE beharreko zerbitzuak

3.2.- RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS

3.2.1. OBJETO DEL SERVICIO

Se considerá objeto del servicio la recogida diaria y transporte de residuos urbanos y asimilables en el municipio de Errenteria.

Dentro de la recogida selectiva de los residuos urbanos, diferenciaremos la recogida del biorresiduo o materia orgánica (contenedor marrón) con la recogida de la fracción resto (contenedor gris).

Quedan fuera del objeto de este contrato la recogida y transporte de los residuos urbanos y asimilables promovidos y gestionados por la Mancomunidad de San Marcos.

Los horarios de recogida de los contenedores de fracción resto y de biorresiduos o materia orgánica serán diurnos. Bien entendido que deberán completarse las rutas de recogida previstas antes de dar por finalizado el servicio, salvo causa debidamente justificada.

3.2.2. SERVICIOS OBLIGATORIOS

Los servicios que tienen el carácter de SERVICIOS OBLIGATORIOS son los que se enumeran a

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

ondoren zerrendatzen direnak dira.

- Errefuxa gaika bildu eta garraiatzea (edukiontzi grixak)
- Hondakin organikoak gaika bildu eta garraiatzea (edukiontzi marroiak)
- Hondakin handiak gaika bildu eta garraiatzea
- Edukiontziak garbitu eta mantentzea
- Edukiontziak aldatzea

Hondakin solidoen barruan bi bilketa-zati izango dira: bat errefuxarena eta bestea hondakin organikoena. Bilketa-lerro bakoitza bi ibilbidek osatuko dute: bata alboko sistema biltzeko edukiontziek osatuko dute, eta bestea atzeko sistemako edukiontziak biltzeko edukiontziek, eta bakoitzak ibilbide jakin bat egingo du.

V.ANEXOan, edukiontzien kokapena adierazten duen taula bat atxikitzen da.

Hurrengo atalean zehaztuko dira zerbitzu bakoitzak dituen ezaugarriak.

3.2.3. ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

3.2.3.1. Hiri hondakinak biltzea

Hiri hondakinak biltzeko zerbitzua udalerri osoan egingo da

Herritarrek sortutako edukiontzi grisetan gordeko diren bio-hondakinak jasotzean datza zerbitzua eta hondakinetako tratamendu zentrora garraiatzea.

Bi bilketa ibilbide izango dira; ibilbide batean atzeko kargako edukiontziak bilduko dira eta bestean aldeko

continuación

- Recogida selectiva y transporte de residuos de fracción resto (contenedores grises)
- Recogida selectiva y transporte de residuos orgánicos (contenedores marrones)
- Recogida selectiva y transporte de residuos voluminosos
- Limpieza y mantenimiento de contenedores
- Sustitución de contenedores

Se dispondrán de dos fracciones de recogida dentro de los residuos sólidos: una de fracción resto y la otro de residuos orgánicos. Cada línea de recogida estará formado por dos recorridos: uno compuesto de contenedores de recogida de sistema lateral y otro de recogida de contenedores de sistema trasera y cada uno hará un recorrido determinado.

En el ANEXO V se adjunta un cuadro detallado de la ubicación de los contenedores.

En el apartado siguiente se especifica las características de cada servicio.

3.2.3. DESCRIPCIÓN DE LOS SERVICIOS

3.2.3.1. Recogida de residuos de fracción resto

El servicio de recogida de fracción resto se realizará en todo el ámbito del término municipal.

El servicio consiste en la recogida de los residuos de fracción resto que generan los ciudadanos en los contenedores grises y transporte al centro de tratamiento de residuos.

Habrá dos recorridos de recogida; un recorrido formado de contenedores de carga trasera y otro

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

kargakoak.

Enpresa lizitatzaileek proposatu ahal izango dtuzte egokientzat jotzen dituzten ibilbideak adierazitako sistemekin batera. Horrela egungo bilketa sistema aldatu ahal izango dute aurkezten duten Zerbitzuaren antolaketa berriaren arabera. Horretan ibildideak, ibilgailuak eta langileak argi zehaztuko dituzte.

Era berean, Udalak erabakiko balu bilketa beste sistema bat ezartzea ibilbide batean edo batzuetan eragingo lukeena, eragindako gunerako kontratuaren baldintzak aztertuko lirateke. Hortaz, horrek ekar lezake baldinza ekonomikoak gutxitzea edo gehitzea.

Honekin batera, VI ANEXOan doa 2024 eta urteetan bildutako hondakinen bolumena.

Bilketarako ordutegia egunekoa izango da. Dena den, argi utzi behar da bilketa guztia egin behar dela zerbitzua bukatutzat jo aurretik, behar bezala arrazoituriko kasuren batean izan ezean.

Pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileak arreta berezia jarri beharko du zerbitzuak ematen dituenean espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko. Horretarako maniobretan isurtzen diren produktuak-likidoak, lixibiatuak- bildu beharko ditu eta erabat debekaturik geratuko da bilatzen aritzea edo bestelako edozein manipulazio hondakinetan.

Pertsona/enpresa kontratistak hondakinen artean aurkitzen dituen balioko gauzak adalaren esku utzi beharko ditu.

Landa eremuan, zerbitzua Listorreta, Barrengoloia, San Marco (fuerte inguruan ere), núcleo rural de Zamalbide eta Añabitarte eta horren barnean sarturik dago Zamalbide auzoko eskola gunea eta Masti-Loidi eta Zentolen aldeko hondakinetako ekarpen-guneak.

recorrido de contenedores de carga lateral.

Las empresas licitadoras podrán proponer los recorridos que estimen más oportunos con los sistemas indicados, pudiendo cambiar la forma actual de recogida con arreglo a la nueva organización del servicio que presenten, definiendo claramente recorridos, vehículos y personal.

Asimismo si el ayuntamiento decidiera la implantación de un nuevo sistema de recogida que afectara a uno o varios recorridos, se estudiarían las condiciones del contrato de la zona afectada que podría suponer disminución o aumento de las condiciones económicas.

Se adjunta en el ANEXO VI el volumen de los residuos recogidos en el año 2024.

El horario de la recogida será diurno; bien entendido que deberá terminarse toda la recogida antes de dar por finalizado el servicio, salvo por causa mayor debidamente justificada.

La persona/empresa adjudicataria deberá tener el máximo cuidado en la ejecución de los servicios al objeto de no ensuciar las aceras y calzadas, debiendo proceder a la limpieza de los productos-líquidos,lixiviados- que se vierten en la maniobra y quedando totalmente prohibido el rebusco, selección o cualquier otra manipulación con los residuos.

Los objetos de valor que la persona/empresa contratista encuentre entre los residuos deberán ser puestos a disposición del ayuntamiento.

En la zona rural, el servicio se efectuará en Listorreta, Barrengoloia, San Marco (incluso entorno del fuerte), núcleo rural de Zamalbide y área de Añabitarte, incluyéndose en el ámbito del servicio la zona escolar del barrio de Zamalbide y las áreas de aportación de residuos de Masti-Loidi y Zentolen.

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

3.2.3.2. Bio-hondakinak biltzea

Hiri hondakinak biltzeko zerbitzua udalerri osoan egingo da

Herritarrek sortutako edukiontzi marroietan gordeko diren bio-hondakinak jasotzean datza zerbitzua eta hondakinetako tratamendu-zentrora garraiatzea.

Bi bilketa ibilbide izango dira; ibilbide batean atzeko kargako edukiontziak bilduko dira eta bestean aldeko kargakoak.

Enpresa lizitatzaileek proposatu ahal izango dtuzte egokientzat jotzen dituzten ibilbideak adierazitako sistemekin batera. Horrela egungo gaikako bilketa sistema aldatu ahal izango dute aurkezten duten Zerbitzuaren antolaketa berriaren arabera. Horretan ibildideak, ibilgailuak eta langileak argi zehaztuko dituzte.

Era berean, Udalak erabakiko balu bilketa beste sistema bat ezartzea ibilbide batean edo batzuetan eragingo lukeena, eragindako gunerako kontratuaren baldintzak aztertuko lirateke. Hortaz, horrek ekar lezake baldinza ekonomikoak gutxitzea edo gehitzea.

Honekin batera, VI ANEXOan doa 2024 urteetan bildutako hondakinen bolumena.

Bilketarako ordutegia egunekoa izango da. Dena den, argi utzi behar da bilketa guztia egin behar dela zerbitzua bukatutzat jo aurretik, behar bezala arrazoituriko kasuren batean izan ezean.

Pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileak arreta berezia jarri beharko du zerbitzuak ematen dituenean espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko. Horretarako maniobretan isurtzen diren produktuak-likidoak, lixibiatuak. bildu beharko ditu eta erabat debekaturik geratuko da bilatzen aritzea edo bestelako edozein manipulazio hondakinetan.

3.2.3.2. Recogida del residuo orgánico

El servicio de recogida del residuo orgánico se realizará en todo el ámbito del término municipal.

El servicio consiste en la recogida de los residuos orgánicos que generan los ciudadanos en los contenedores marrones y en el transporte al centro de tratamiento de residuos.

Habrá dos recorridos de recogida; un recorrido formado de contenedores de carga trasera y otro recorrido de contenedores de carga lateral.

Las empresas licitadoras podrán proponer los recorridos que estimen más oportunos con los sistemas indicados, pudiendo cambiar la forma actual de recogida selectiva con arreglo a la nueva organización del servicio que presenten, definiendo claramente recorridos, vehículos y personal.

Asimismo si el Ayuntamiento decidiera la implantación de un nuevo sistema de recogida que afectara a uno o varios recorridos, se estudiarían las condiciones del contrato de la zona afectada que podría suponer disminución o aumento de las condiciones económicas.

Se adjunta en el ANEXO VI el volumen de los residuos recogidos en el año 2024.

El horario de la recogida será diurno, bien entendido que deberá terminarse toda la recogida antes de dar por finalizado el servicio, salvo por causa mayor debidamente justificada.

La persona/empresa adjudicataria deberá tener el máximo cuidado en la ejecución de los servicios al objeto de no ensuciar las aceras y calzadas, debiendo proceder a la limpieza de los productos-líquidos, lixiviados- que se vierten en la maniobra y quedando totalmente prohibido el rebusco, selección o cualquier otra manipulación con los residuos.

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

Pertsona/enpresa kontratistak hondakinen artean aurkitzen dituen balioko gauzak udalaren esku utzi beharko ditu.

Los objetos de valor que la persona/empresa contratista encuentre entre los residuos deberán ser puestos a disposición del ayuntamiento.

3.2.3.3. Tamaina handiko zaborrak biltzea

Tamaina haundiko zaborrak biltzeko zerbitzua udalerri osoan egingo da.

Herritarrek sortutako tamaina haundiko hondakinak jasotzean datza zerbitzua. Tamaina haundiko hondakin hauen gehien bat altzariz osatuak daude eta hondakinetako tratamendu-zentrora garraiatzea.

Tamaina handia biltzeko, telefono bidezko arreta emango zaie herritarrei. Herritarrek tamaina handiko hondakinak biltzeko ordua deitu eta hitzartuko dute enpresa lizitatzailearekin portaletik gertuen dagoen kokapena bermatuz.

Bestalde, egunero edukiontzi-uharteen edota udalerriko beste eremuen inguruan sortutako hondakinak ere gaika jaso beharko dira, udalerria tamaina handiko hondakinik gabe mantenduz.

Pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu objetuak nahiz materialak ez isurtzeko hondakinen bilketan nahiz garraioan. Horrela, bada, maniobretan isurtzen diren produktuak berehala bildu beharko dituzte.

Pertsona/enpresa adjudikazio-hartzaileak bilduriko materialak garraiatuko ditu dagokien tratamendu instalazioetaraino. Han ibilgailutik zama kenduko dute solairuko langileen aginduen arabera, era horretan ondoren bildutakoaren birziklatzea eta tratamendua erraztearren.

3.2.3.3. Recogida de residuos voluminosos

El servicio de recogida de residuos voluminosos se realizará en todo el ámbito del término municipal.

El servicio consiste en la recogida de los residuos voluminosos que generan los ciudadanos, formados por muebles y elementos de tamaños de volumen considerable y transporte al centro de tratamiento de residuos.

Para la recogida del voluminoso, se dará una atención ciudadana por teléfono. La ciudadanía llamará y concertará con la empresa licitadora la hora para recoger los residuos voluminosos en el punto donde se determine, procurando que esté lo más cercano al portal.

Por otro lado, diariamente, se deberán de recoger selectivamente los residuos abandonados entorno a las islas de contenedores o en otros ámbitos de todo el municipio; manteniendo éste libre de residuos voluminosos.

La persona/empresa adjudicataria adoptará las debidas precauciones para evitar el vertido de objetos y materiales tanto en la recogida como en el transporte. Por ello se precederá inmediatamente a la limpieza de los productos que se viertan en la maniobra.

La persona/empresa adjudicataria transportará los materiales recogidos hasta las instalaciones de tratamiento correspondientes donde efectuarán la descarga del vehículo siguiendo las instrucciones del personal de planta, a fin de facilitar el posterior reciclaje y tratamiento de lo recogido.

ESKUa9d36d6c-1570-4598-ab35-a3e6ce8b62d5

